



Fiare Banka Etikoak sozietate-kapitala biltzeko kanpaina ireki du

Fiare Proiektuari Laguntzeko Elkartea sozietate-kapitalerako ekarpenak jasotzen ari da epe motzean finantza sistema solidario eta alternatiboa oinarritzat hartuko dituen Banka Etikoko kreditu kooperatiba bat eratzeko.

[Informazio +](#)



Julio Gallastegui, Euskadiko Kutzako Zuzendari Nagusi berria

Egun, Lagun Aro EPSV Mutualitateko zuzendari nagusia eta Euskadiko Kutzako Kontseilu Errektoreko lehendakariordea da. Lehenago, erantzukizun handiko hainbat kargu bete ditu entitate finantzarioan, eta horrela, "finantza-munduari eta entitateari buruzko ezagutza luze eta sakona lortu du".

[Informazio +](#)



Eusko Jaurlaritzak eta Mondragon Korporazioak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute 2010-2013 aldirako

Informazioa eta Komunikazioa, Ekintzailatza, Enpresa Garapena, Teknologia eta Berrikuntza, eta Nazioartekotzea arloetan lan egingo dute

[Informazio +](#)



Eroskik ijitoen integrazioa bultzatuko du heziketaren bitartez

Ijitoen Idazkaritza Fundazioak eta euskal banaketa enpresak sinatutako hitzarmenak aipatu fundazioak kudeatzen dituen enplegu eta prestakuntza programetan parte hartu duten pertsonentzako -16 eta 30 urte arteko gazte eta emakumeak bereziki- trebakuntza praktikak barneratzen ditu.

[Informazio +](#)



Burdinola kooperatibak EHUko Lucio Lascaray eraikuntza berriaren laborategiak instalatu ditu

Burdinolak hornitu ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen Arabako kanpusean kokatua dagoen Ikerkuntza eta Ikasketa Aurreratuen Zentroko laborategiak. Honi esker, ia hogeita bat taldek garatuko dituzte bertan beren ikerketa lanak, batit bat, zientzia esperimentalarekin eta osasun gaiekin loturikoak.

[Informazio +](#)



Gureak Taldeak Passat Volkswagen berriko argiztapen sistemak landuko ditu

Proiektu honetan Gureak Taldeko 70 pertsona baino gehiagok



Zortzi milioi pertsonak sufritzen dute pobrezia Espainiar Estatuan

Egun, pobrezia-atalasearen azpitik dauden pertsonen zifra 80 milioira iristen da egun Europan. Horregatik, Caritasek urte honetan zehar solidaritatean eta justizian oinarritutako gizarte eredu europar bat indartzearen alde lan egiteko beharra azpimarratu du.

[Informazio +](#)



REASEK Economia Solidarioko Praktika Onak biltzen dituzten erreportajeak argitaratu ditu

Elikadura subiranotasuna, laneratzea eta gizarteratzea, gizarte-sareak eta bidezko merkataritza dira artikulek lantzen dituzten gaietako batzuk. REASEk azken hilabeteotan bildu dituen ekonomia solidarioko 60 esperientzia baino gehiagotan oinarritzen dira eta, horien artean, Euskadin garatzen diren zazpi proiektu aurki daitezke.

[Informazio +](#)





Ian egingo dute aurreko eta atzeko argientzako piezak eta muntaiak lantzen 2014. urtera arte. Jarduera honek irabazi ekonomikoak eta egonkortasuna ekarriko dizkio elkarteari.
[Informazio +](#)



Munduko Gizarte Foroak langileek krisiari aurre egiteko antolatutako erantzun bezala aurkeztu zuen gizarte ekonomia

Urtarrilaren 25 eta 29 artean egin zen ekitaldiaren hamargarren edizioak Porto Alegre (Brasil) izan zuen gune nagusi; lehen gailurra ospatu zuen hirian, hain zuzen ere. Jardunaldi hauetan, egungo krisiari aurre egiteko langileek berek antolatutako erantzun gisa aurkeztu zen gizarte ekonomia.

[Informazio +](#)

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak 'Stop CO2 Euskadi' ekimenarekin bat egin du

Mondragon Korporazioaren barne dagoen enpresa arduratuko da berotegi efektua eragiten duten gasen urteko inbentarioa eta CO2 Kudeatzeko Urteko Plana egiteaz eta gauzatutako ekintzen zabalkundeaz, besteak beste.

[Informazio +](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz